

'Bularretik mintzora', haur txikiaren irakurzaletasuna bultzatzeko ekimena

DONOSTIA. DV. Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkartek eta Eusko Jaurlaritzak Durangoko Azoka baliatuko dute gaur bertan Bularretik mintzora ekimena aurkezteko, 2007ko Irakurri kanpainaren amaiera dela eta. Egitasmoak, ordea, datorren urteko kanpainari begiratzen dio, 2008 urteko Irakurri kanpainaren ekimen nagusietakoa izango baita.

Galtzagorriek prestatu duen Bularretik mintzora egitasmoa 0-6 urte bitarteko haurren irakurzaletasuna sustatu eta garatu ahal izateko, guraso eta hezitzaileak formatzeko eta inplikatzeko egitasmoa da. Izan ere, haurren garapen emozionalean literaturak duen garrantziaz aipatu guraso eta hezitzaileak kontzientziazatzea da egitasmoaren helburu orokorra.

Lehen saioa, Tolosan

Egitasmoak Bularretik mintzora izeneko CD-liburuxka du euskarri. Bertan, Miren Agur Meabe, Juan Kruz Igerabide, Pello Añorga, Lourdes Etxebarria eta Itziar Zubizarretaren ahotsen bitartez, sehaska kanta, magaleko jolasak, esku jolasak eta hitz jolasak grabatu dira. Horien guztien letrak eta erabilerarako oharrak biltzen ditu gainera CDarekin batera doan liburuxkak. Euskarri honi loturik, abenduan lehenengo aldiz Tolosan garatuko den ekimena burutuko da. Ekimen honek CD-liburuxkaz gain, irakurketa puntu bat ezarriko du Tolosako Haur Liburutegian. Bertan, liburu betetako mailetak apailatuko dira: maleta batzuk, 0 eta 3 urte bitarteko haurrei zuzendutako liburuak bilduko dituzte, Galtzagorriek aukeratuak. Beste batzuk, 3tik 6 urte bitarteko haurrentzako liburuak. Maleta horiek maileguan eraman ahal izango dituzte gurasoek haurrentzat. Astebeteko epearen ondoren, itzuli egin beharko dituztelarik. Maleta bakoitzak CD-liburuxka bat eramango du bere baitan.

Irakurketa puntu horretan foileto hezigarri batzuk ere eskainiko dira: guraso eta hezitzaileentzako gomendioekin eta adinka banatutako liburu gomendagarriak biltzen dituzten esku orriekin. Egitasmoak prestakuntza saio batzuk ere biltzen ditu. Modu honetan, hiru formazio eskaintza bideratuko dira: abenduaren 18an Juan Kruz Igerabidek eskainiko du hitzaldi literarioa. Eta hilaren 19an Juan Carlos Alonso psikologoak haurren garapen emozionalean txiki-txikitatik literaturak duen garrantzia azalduko die. Urtarrilean berriz, Pello Añorgak eta Itziar Zubizarretak ikastaroa eskainiko dute, haur txikienei ipuinak kontatzen, errezitatzen eta irakurtzen irakasteko.